

sistemaren
erreforma
orokorrari
BAI



**amantalak
kalera !**

MARTXOAREN 29AN , ETXE HAU GREBAN !

Pobreziaren feminizazioa errealitate bat da. Murrizketa eta erreformetan ikusi dezakegun moduan, gure lan eta eskubide sozialen gaineko erasoek ez dute egoera muturrera eraman eta errealitatea prekarizatu, okertu besterik egiten. Ez zaigu kontuan hartzen irtenbide errealak planteatzeko garaian, baina aldiz, ofentsiba kapitalista patriarkaletik eratortzen diren ondorioak zuzen- zuzenean ordaintzen ditugu.

Emakume guztiak, Martxoaren 29ko greba deialdiarekin bat egiten dugu, soldatapekoak izan edo ez, kalera aterako gara, aldarrikatzera:



ETXEKO ETA ZAINZA LANAK, ERREKONUZIMENDURIK GABEAK ETA ESKUBIDEETAN ETA GARANTIAK HANKA MOTZ DIRENAK, LANAK DIRELA, LANA DELA.



EGUNGO SISTEMA EKONOMIKO ETA SOZIAL HAU EMAKUMEOK EGITEN DUGUN LAN IKUSEZINARI ESKER MANTENTZEN DELA.



NAHIZ ETA URTEETAN ZEHAR EMAKUMEOK EGIN DITUGUN ETA EGUN ERE EGITEN DITUGUN LAN HAUEK ESTADISTIKETAN ETA MEDIO OFIZIALETAN EZ ATERA, ONGIZATEA ETA ABERASTASUNA AHALBIDETU ETA SORTZEN DUTELA.



BIZITZA ETA PERTSONAK EGON BEHAR DUTELA SISTEMAREN ERDIGUNEAN, ETA EZ EGUN DAUDEN MODUAN MERKATUAK.



BADA GARAIA, ETXEAN, EREMU PRIBATUAN ERE GREBA EGITEKOA!

Horregatik guztiagatik, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxatik dei egiten diogu jendarteari oro har, eta emakumeei bereziki, martxoaren 29an greba egitea gainerako langile klasearekin batera. Eta animatzen zaituztegu, etxeko balkoietan eta leihoetan amantalak, mantalak eskegitzera; etxe hau greban dagoenaren adierazle gisa! Ez garbiketarik, ez erosketarik, ez otordurik...

M-29AN ETXE HAU GREBAN!

Euskal Herriko emakumeon mundu martxarako plataforma

